



01
EAEN

b)

HIZKUNTZA-EREDUAK AURRERA BEGIRA

Erramun Osa

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Hizkuntza arduraduna

Helbide elektronikoa: erramunosa@ehik.ikastola.net

"Hasiak egina dirudi eta eginak urregorria"

Hizkuntza-ereduei buruzko eztabaida mahai gainean daukagun honetan, honen emaitza, besteak beste, hizkuntza-politikaren nola baita hezkuntza-politikaren oinarritzko habeei ez ezik gizarte-kohesioari ere eragiten dion heinean, kontu handiz bideratu eta hotzean aztertu beharko genukeen gaia da, besteren artean, urteetako ibilbidearen nondik norakoak ongi zedarrizuz (argi-ilunak ongi definituz) eta Europan kokaturik dagoen egungo zein etorkizuneko euskal gizartearen beharrezanein zein eskakizunei erantzuten joateko bidean urrats erabakigarriak eginez.

Aztergai izango ditugun bederatziz azpi-atalak honakoak izanen dira:

1. Hizkuntza-ereduak: testuingurua.
2. Hizkuntza aniztasuna kontuan, elebitasuna oinarri.
3. Argi-ilunak.
4. Helburuak birdefinituz. Elebitasunetik eleaniztasunera.
5. Hizkuntza aniztasuna eta eleaniztasuna Europako testuinguruan.
6. Hizkuntza-ereduak hezkuntza politikaren markoan.
7. Hizkuntza-ereduak aldatzeko gutxieneoak.

8. Etorkizuna eraikitzen joateko habeak.
9. Halako bide bati ekiteko aurreikus litezkeen zenbait erresistentzia.

Ekin diezaiogun, bada, azterlanari.

1. HIZKUNTZA-EREDUAK: TESTUINGURUA

Jakina denez, gure artean, eskola elebidunaren aldeko aldarria ez da oraingoa, ez eta 1980ko hamarkadan gorpuztu zen eskakizuna ere. Alta, XIX. mendean indarra hartu zuen eskaria izan zen, bada, Frantzia eta Espainian eskola berriaren oinarriak zehaztu ziren garaitik dator, gutxienez. Izan ere, Frantziak eta Espainiak barnebiltzen zituzten herri-sentimenduak urtu eta estatu eta nazio sentimendu bateratuak sortzeko bidean, besteren artean, hezkuntzaz baliatu izan ziren. Hezkuntza sistema horietan apenas zegoen hizkuntza-aniztasunerako tarterik. Geroztik, euskararen irakaskuntza gauzatzeko lehenik, eta euskarazko irakaskuntza ere ostean, aldarrikapena ez ezik askotariko ahaleginak ere izan dira, dela Diputazioen dela gizartearen esku-hartzearekin zein bestelakoekin. Ahalegin horien artean errotuena eta hezkuntzan eraginik zabalena izan duenak Ikastolen sorrerarekin eta garapenarekin zerikusia du ezbairik gabe.

Espainian, II. Errepublikaren kontra gertatu zen altxamendu militarrik ezarri zuen diktadurak hankaz gora jarriko zituen, aldi baterako, ikastolen mugimendua ez ezik administrazioaren baitako bestelako eskoletan euskararen eta euskarazko irakaskuntza bideratzeko ordura arte egindako urratsak ere. Baina, nahia, beharra, gure hizkuntzari eta herri-izaerari eusteko gogoak hor zirauten, beraz, berrogeita hamarrek hamarkadan, haien ongizatea arriskuan jarriz, bidegile suertatu diren guraso askori esker, han-hemenka ikastolak sortzen hasi ziren berriro, diktaduraren jazarpenetik ihesi, Euskaltzaindiaren, Elizaren, zein beste-lako erakundeen gerizpea bilatu zutelarik, bidenabar.

Hasieran, euskaraz zekitenei irekita, gerora, euskaraz ez zekitenei ere ireki ziren ikastolak, eta horren ondorioz, erronka berriak ez ezik, eztabaida sutsuak ere izan ziren, besteak beste, euskararik ez zekitenei atek irekitzeak, besteren artean, euskara eta euskal kultura indarberritzeko asmoz sortutako ikastolen barne giroa, hein handi batean, erdal-duntzea baitzekarren, euskaldunen hizkuntza-gaitasunean eraginez. Euskaraz zekitenei erakusteak zailtasun handiak planteatzen bazituen (material eskasia zegoen, baliabide urriak zeuden, ikuspegi pedagogikoak gaurkotu beharra zegoen, irakasleriaren oinarrizko zein prestakuntza iraunkorra eta abar), euskararik ez zekitenei erantzun beharrak zailtasunak areagotzen zituen. Testuinguru hori Franko hil ostean dezente konplikatu da. Izan ere, Estatuaren jabetzapeko eskoletan nola baita ikastetxe pribatuetan (ordena erlijiosoan menpekoak, batez ere) euskararen

Alta, XIX. mendean indarra hartu zuen eskaria izan zen, bada, Frantzia eta Espainian eskola berriaren oinarriak zehaztu ziren garaitik dator, gutxienez. Izan ere, Frantziak eta Espainiak barnebiltzen zituzten herri-sentimenduak urtu eta estatu eta nazio sentimendu bateratuak sortzeko bidean, besteren artean, hezkuntzaz baliatu izan ziren. Hezkuntza sistema horietan apenas zegoen hizkuntza-aniztasunerako tarterik.

Hasieran, euskaraz zekitenei irekita, gerora, euskaraz ez zekitenei ere ireki ziren ikastolak, eta horren ondorioz, erronka berriak ez ezik, eztabaida sutsuak ere izan ziren, besteak beste, euskararik ez zekitenei ateari irekitzeak, besteren artean, euskara eta euskal kultura indarberritzeko asmoz sortutako ikastolen barne giroa, hein handi batean, erdalduntzea baitzekarren, euskaldunen hizkuntza-gaitasunean eraginez.

eta euskarazko irakaskuntza ahalbideratzeko abagunea sortzen baita, sasoi bateko aldarrikapenei ateari irekiz, bidenabar.

Testuingurua konplikatu da oso. Izan ere, Frankismotik atera berria zen administrazioaren jabetzapeko ikastetxeetan maisu-maistren gutxiengo batek (% 6-7 inguru) zekien euskaraz. Horietako gutxi ziren, gainera, euskaraz irakasteko gauza, eta beste asko euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren kontrakoak ziren. Halaber, euskara hezkuntza sisteman oro har txertatzearen aldeko giroa zegoen arren, euskarari lehentasuna emanez gero seme-alaben garapen kognitiboan eragin negatiborik izango ote zuen zalantza eta antzeko usteak gaintitzeak eta gurasoak euskarazko irakaskuntzara erakartzeak berebiziko garrantzia zuen, materialak gaurkotu egin behar ziren, maisu-maistren prestakuntza bideratu eta abar, beraz, erronka handiei egin behar zitzaaien aurre. Gauzak horrela, Jaurilaritza eta Nafarroako Gobernua eratu aurreko instituzioan (Eusko Kontseilu Nagusia) zein inguruan ziharduten hainbatek egoera hori bideratzeko gogotik jardun behar izan zuten.

1979ko apirilaren 20ko Errege Dekretuaren eta urte bereko abuztuaren 3ko Aginduaren altzora Espainiako Gobernuak euskararen eta euskarazko irakaskuntza arautzeko bidea irekiko zuen. Hari horiei tiraka, Espainiako Hezkuntza Ministerioak hizkuntza-ereduen lehen proposamena¹ gorpuztu zuen. Habe haiek, eskoletarako gomendioa ez ezik², EAEko Estatutua onartu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 81-82 ikasturterako idatzitako zirkularrerako ere baliatuko ziren. Hortik aurrera, indarrean jarri zen arautegiak eskola guztiak jomugan zituela hartu beharko genuke kontuan. Alabaina, euskararen eta euskarazko irakaskuntzatik aparte zeuden eskoletarako lagungarri gertatu zen arren, eredu propioa eraikitzen ari ziren ikastolen kasuan, haien jarduna baldintzatzeko³ tresna gisa ere baliatuko zen.

2. HIZKUNTZA ANIZTASUNA KONTUAN, ELEBITASUNA OINARRI

Datorren urtean, azaroaren hogeita lauan, hogeita bost urte beteko dira EAEko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko onartu zela⁴. Lege hori euskara indarberritzeko oinarrizko habe juridikoa da. Legearen 16. artikulua lehenbiziko puntuak dioenez, “Unibertsitate ikasketaraino eman dadin irakaskuntzan, gurasoak, kuradoreak, edo hala egokituz gero ikasleak berak ikasketak egiteko aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala erakustea nahitaezkoa izango da”. Bigarren puntuak, ostera, “Jaurilaritzak ikastegi bakoitzean erabili beharreko hizkuntza-ereduak araupetuko ditu, guraso edo kuradoreen nahia eta eskualdeko gizarte-hizkuntzazko egoera kontuan izanik” dio. Era berean, 16.3 puntuak “Herri-diruzko laguntza hartu eta araupeko irakaskuntza Elkarrean ofizial ez den hizkuntza bat oinarri dela eman ditzaten norbanako-

jabetzapeko ikastegiekin, euskara eta gaztelera nahitaezko ikasgai gisa emango dituzte" gaineratzen du.

Aipaturiko Legeak, derrigorrezko irakaskuntzan lortu beharreko helburuei buruz jardutean, berriz, honela dio: "Jaurlaritzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantza emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du" (17. artikulua). Gauzak horrela, Legearen oinarria, **hizkuntza aniztasuna gogoan, elebitasuna da** (gaztelania eta euskara), ezbairik gabe. Era berean, Legeak, oinarritzko kontraesan bat azaleratzen du: irakaskuntza sistemak bi hizkuntzekiko dauzkan xedek komunak dira, baina, testuinguruak behartuta (nik uste), horra iristeko bide desberdinak zehazten ditu (hizkuntza-ereduak), bide bakoitzean lortzen den hizkuntza-maila desberdina izan dadin ahalbideratuz.

3. ARGILUNAK

Aurreko lerroetan esan bezala, hizkuntza-ereduek emandakoez balorazioa egiteko orduan, sasoi bateko giroa oso kontuan hartzea komeni da. Ikastolen kasuan ereduak haien jarduna zenbaitetan baldintzatzeko⁵ helduleku bihurtu baziren ere, oro har hartuta, balorazio ezkorrik ezin egin liteke, nik uste, besteren artean, zaila zen testuingurua, adostasun sozial zabal baten bidez, bideratzeko abagunea eskaini baitute, egoera soziolinguistikoa eraldatzen joan dadin ekarpen erabakigarria eginez.

Gurasoen eredu bat edo beste hautatzeko eskubidea izateak euskararen jardunaren inguruan borondateak praktikara batzea ahalbideratu du. Besteak beste, gurasoen aukeratu ahal izan dutelako, eta ezarri ez den legez, kontra egoteko heldulekurik ez dute eduki. Era berean, eredurik euskaldunenetan matrikulatu arren, euskaraz emaitza onak izan zitezkeela eta antzeko ahaleginarekin hizkuntza bi gutxienez eskuratzeko modua egon daitekeela ere frogatu ahal izan da. Prozesu horrek, bide batez, A eredu desagertzeko bidean jarri eta eredurik euskaldunenak indartzea ekarri du, aldi berean, eskolan dabilzan milaka profesional euskalduntzeko denbora ere eskainiz.

Euskararen normalkuntza euskararentzat hiztunak mantentzera eta gehitzera zein erabilera eremuak irabaztera bideratutako prozesu sozializatza definiturik, gizartearen sakoneko eraldaketa prozesu bati buruz ari garela oso kontuan eduki behar dugu, batez ere erdalduna den gizarte bat berreuskalduntzeaz ari gara, eta hori, epe labur batean, gizartearen oinarritzko adostasunik tarteko gertatu gabe, zuzeneko esku hartzerik gabe eta, aldi berean, askotariko instituzioen jardun irmo eta eragingarrik gabe ezin gerta liteke. Denboran zehar galdutakoa berreskuratzeko, beraz, denbora behar da, maratoia korritzen ari denaren pazientzia erakutsiz eta kemena etengabe mantenduz.

Gauzak horrela, Legearen oinarria, hizkuntza aniztasuna gogoan, elebitasuna da (gaztelania eta euskara), ezbairik gabe. Era berean, Legeak, oinarritzko kontraesan bat azaleratzen du: irakaskuntza sistemak bi hizkuntzekiko dauzkan xedek komunak dira, baina, testuinguruak behartuta (nik uste), horra iristeko bide desberdinak zehazten ditu (hizkuntza-ereduak), bide bakoitzean lortzen den hizkuntza-maila desberdina izan dadin ahalbideratuz.

Adin-tarterik gazteenetan hizkuntza-gaitasunean aurrera egin dugu (azterlanen arabera, gutxieneko maila erdietsi ez dutenak ere erdalduntzat ezin har litezke), gizarte-kohesioan urratsak egin ditugu (gatazkatsua zen testuinguru bat adostasunaren bitartez bideratuz) eta abar. Beraz, balorazio ezkorra egiten dutenei itaundu egin behar zaie, 1980ko hamarkadako testuingurua lehenago aitatutakoa zelarik, zer egin behar zen? Guraso gehienen nahia albo batera utzita, eredu bakar bat ezarri? Horren ondorioz, euskaraz irakasteko gauza ez ziren irakasleak-eta (gehienak) kaleratu egin behar ziren?

Adin-tarterik gazteenetan hizkuntza-gaitasunean aurrera egin dugu (azterlanen arabera, gutxieneko maila erdietsi ez dutenak ere erdalduntzat ezin har litezke), gizarte-kohesioan urratsak egin ditugu (gatazkatsua zen testuinguru bat adostasunaren bitartez bideratuz) eta abar. Beraz, balorazio ezkorra egiten dutenei itaundu egin behar zaie, 1980ko hamarkadako testuingurua lehenago aitatutakoa zelarik, zer egin behar zen? Guraso gehienen nahia albo batera utzita, eredu bakar bat ezarri? Horren ondorioz, euskaraz irakasteko gauza ez ziren irakasleak-eta (gehienak) kaleratu egin behar ziren? Zergatik A ereduak zonalde eta lurralde batzuetan du pisu handiagoa? Pertsonak euskararen eremura erakarriz, nola eman are bizkorrago buelta egoera horri?

Prozesu mailakatua eta borondateak bilduz gertatzen ari denez, badira euskararen ezagutzan gutxiengo maila bat izatera iristen ari ez direnak. Badira, halaber, B edo D ereduan ikasi duten edo hala diharduten kurtso bereko asko non haien artean oso gaitasun desberdina erakusten duten. Lehenbizikoen kasuan, euskaraz gaitasun apala izatea bera ere ez ote dugu hartu behar amaitu gabeko aurrerapausotzat, bururaino hartu beharreko erronkatzat? Guztien kasuan, etxeko hizkuntzak, familia-baldintzak (ekonomikoak, ikasketak eta abar), ingurune soziolinguistikoen, hizkuntzen arteko interferentziak, hizkuntzak eskuratzeko baliatutako metodologiak, hizkuntzarekiko hartu-emanak, harreman-sareak, euskaraz hitz egiteko dituzten egiazko aukerak eta abar luzeak eragina du; besteak beste, hargatik erakusten dute gure gazteek, D ereduan ibili arren, haien artean horren gaitasun desberdina.

Fishmanek⁶ "Ikaskuntzak, ikasbide eta ikastetxeak ez du bere lanaren jarraipen bermerik segurtatzen. Eskolatik bakarrik ezin espero liteke konponbiderik. Etxe-auzo-bizigiro multzo korapilatsu horren falta du eskolak. Hizkuntza ezin du eskolak bere kabuz eta bere eragin hutsez biziberritu" zioen. Eskolak ez duela euskalduntzen bezalako baieztapenak egiten direnean, aipu hau oso kontuan eduki beharko genukeela iruditzen zait. Izan ere, ondorio eta jarraibide okerretarako abiapuntua bilaka liteke, bestela. Inguruabar horretan sakonduz, erdaraz —batez ere— funtzionatzen duen egungo gizarteak eskolari gauza asko eskatzen dizkio, baita gizarteak bereak dituen oinarrizko ahuleziak eta eiteak zuzentzea ere. Baina, eskola ez da ilargian isolatuta dagoen zerbait. Eskola, egun, gizartean bizi dugun errealitate linguistikotik urrun dago eta gizartearen esku hartze are handiagoa eskatzen dihardu euskararen indarberitze ahaleginean.

4. HELBURUAK BIRDEFINITUZ. ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA

1990eko hamarkadan, hainbat faktore tarteko direla, ingelesaren eskuratzeko goiztiarrari ateak parez pare irekitzen dizkiote ikastolek, atzerriko

hizkuntzen eskuratzean bidegile suertatuz. Gaur egun, egitasmo hau oso zabaldua dago irakaskuntzan, baina indarra hartu ahala, hainbat zalantza barreiatu da, besteak beste, atzerriko hizkuntzen eskuratzeari horrenbesteko tartea eskaintzeak ez ote duen euskararen indarberritzea ahultzen (azterlanak daude honakoa ezeztatzen dutenak), eskuratze goiztiar hori ez ote litzatekeen berantiarago bihurtu behar (egun, geroz eta goizago planteatzen da), emaitzak onak ote diren eta abar.

Euskararekiko maila egokia ziurtatu gabe ingelesaren eskuratzeari ekitea bezalako zalantzak ulergarriak dira, prebentzioa agertzea ere bai, baina korrontearen kontra jarduteak ez dio euskararen eta euskarazko irakaskuntzari mesederik egingo, nik uste. Defentsiban jarduteak ez digu lagunduko, besteak beste, promozio eta arrakasta pertsonalerakota (lan are hobea topatze aldera eta abar) atzerriko hizkuntzetan maila ona izatea bilatzen delako, geroz eta era indartsuagoan, egungo gizarte globalizatueta, eta estatuek ez ezik euskal gizarteak berak ere (besteren artean, gurasoek) presioa eginen dutelako hala gerta dadin. Atzerriko hizkuntzak eta euskara aurrez aurre jartzen baditugu, euskara galtzaile aterako dela uste osoa dut (horixe da, hain zuzen, Nafarroako Gobernuak euskarari lekua kentzeko egun darabilen strategiaren oinarria). Beraz, gure ahalegina, langak jartzea bainoago euskararen indarberritzea lagunduko duen eleaniztasun planteamendua gorpuztean jarri beharko genuke. Gauzak horrela, **eleaniztasuna bai, baina ez edonola** izan beharko luke gure goiburuak. Helburua garbi definituz (**euskaldun eleaniztunak sortu nahi ditugu**). **Eleaniztasun planteamendu horren ardatz euskara bihurtuz** (egun, batzuen kasuan gaztelania⁷, beste batzuen kasuan euskara da).

5. HIZKUNTZA ANIZTASUNA ETA ELEANIZTASUNA EUROPAKO TESTUINGURUAN

Gure artean⁸ ez ezik nazioartean ere hizkuntzen eskuratzean garatu diren zenbait esperientzia eta proposatu diren hainbat irizpide gogoan hartuz, Europako Kontseiluak⁹ zenbait jarraibide eskaintzen dizkigu:

- Hizkuntza aniztasuna. "Hizkuntza aniztasunak hizkuntza asko ezagutzea edo gizarte jakin batean hizkuntza asko aldi berean bizitzea esan nahi du. Ikastetxe batean edo hezkuntza sistema jakin batean eskaintzen diren hizkuntzak dibertsifikatze hutsarekin lor daiteke hori, ikasleek atzerriko hizkuntza bat baino gehiago ikas dezaten bultzatuz, edo ingelesak nazioarteko komunikazioan duen nagusitasuna murriztuz." (24. orrialdea)
- Ikuspegi eleaniztuna. "Gizabanakoak hizkuntza baten kultur ingurunean duen hizkuntza esperientzia zabaldu ahala, (...), hizkuntza eta kultura horiek ez ditu adimenaren gune berezietan gordetzen; aldiz, **komunikazio-gaitasun bat garatzen du, hizkuntza arloko**

Beraz, gure ahalegina, langak jartzea bainoago euskararen indarberritzea lagunduko duen eleaniztasun planteamendua gorpuztean jarri beharko genuke. Gauzak horrela, eleaniztasuna bai, baina ez edonola izan beharko luke gure goiburuak. Helburua garbi definituz (euskaldun eleaniztunak sortu nahi ditugu). Eleaniztasun planteamendu horren ardatz euskara bihurtuz (egun, batzuen kasuan gaztelania, beste batzuen kasuan euskara da).

Beraz, ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea da (hizkuntzak baliatuz askotariko jarduerak burutuz) proposatzen dena, hizkuntzei eman beharreko trataeraren oinarria. Oinarri horri hizkuntzarekin batera doan kultur planteamendua ere erantsiz. Honek, besteak beste, hizkuntzen irakaskuntza era isolatuan planteatu ordez, hizkuntzen arteko curriculuma eraikitzea eskatzen du.

ezagutza eta esperientzia guztien bidez eta hizkuntzen arteko harremanaren eta elkarreraginaren bidez.” (24. orrialdea)

• “Ez da hizkuntza batean, bitan —edo are gehiago hirutan— “gaitasuna” lortzea soilik, hizkuntza bakoitza bereiz hartuta eta “hizkuntza hori ama-hizkuntza duen hiztun ideala” oinarritzko eredu gisa ikusita. Aitzitik, **hizkuntza ahalmen guztiak bilduko dituen hizkuntza errepertorio bat osatzea da helburua.**” (24. orrialdea).

Beraz, ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea da (hizkuntzak baliatuz askotariko jarduerak burutuz) proposatzen dena, hizkuntzei eman beharreko trataeraren oinarria. Oinarri horri hizkuntzarekin batera doan kultur planteamendua ere erantsiz¹⁰. Honek, besteak beste, hizkuntzen irakaskuntza era isolatuan planteatu ordez, hizkuntzen arteko curriculuma eraikitzea eskatzen du (metodologia eta ebaluazio orientabideak konpartituz, mailen nola baita etapen artean era koherentean garatzeko urratsak ongi zedarrituz), eta baita arloetako hizkuntza-beharrak identifikatzea eta lantzea ere (arloetako irakasleak ere hizkuntza-irakasle bihurtuz eta abar). Inguruabar horretan, eskola kokatuta dagoen testuingurutik aldentuz, halako edo bestelako hizkuntza bati horrenbeste ordu finko aitortzeak zein hizkuntzak konpartimentuetan jartzeak (hizkuntza-ereduak) ez dauka zentzurik.

Egun, eskuartean daukagun eztabaida, bada, beste leku batean dago: zein dira bizi osorako hezkuntza planteamenduen jiran, derrigorrezko irakaskuntza amaitzen duen gazte batek gaztelaniari, euskarari, ingelesari, eta laugarren hizkuntza bati (gure kasuan, frantsesari) buruz eskuratu beharko lituzkeen gaitasunak? Hori da funtsezko eztabaida, euskal gizartean etorkizun hurbilean lortu beharreko adostasun berriaren oinarria¹¹.

6. HIZKUNTZA-EREDUAK HEZKUNTZA POLITIKAREN MARKOAN

Gizarte kohesioaren nola baita hizkuntzak eskuratzearen inguruabarrean (hizkuntza-politika) aritu gara. Alabaina, hezkuntza politikaren uretan murgiltzea ere komeni da. Izan ere, Europako testuinguruan proposatzen direnak arrakastaz bideratu ahal izateko, besteak beste, bestelako antolaketa molde bat ere beharko litzateke, Euskal Hezkuntza Sistema (berezko ezaugarriak dituen) gorpuzteko urrats erabakigarriak eginez. Izan ere, frankismoaren ostean Erkidegoen esku hezkuntza eskuduntzak geratu arren, Frantzia eta Espainia XIX. mendean ezarri ziren hezkuntza eredu horren habeek (uniformetasuna, zentraltasuna, eta abar) bere horretan dira.

Alabaina, ezaugarri propioak dituen eleaniztasun planteamendua gorpuzteko, besteak beste, hezkuntza-komunitateak autonomia (helburuak lortze aldera, giza baliabideak kudeatzeko-eta askatasuna edukiz),

lankidetzan aritzea (ikastetxe barnean nola baita ikastetxeen artean), estrategiak-eta konpartitzea (orientabide metodologikoak, ebaluazio orientabideak eta abar konpartituz zein bateratuz) eta abar eskatzen ditu. Beraz, hezkuntza-sarearen beraren habeak gaurkotzea ere exijitzen du, irakaskuntzaren inguruabarrean ari diren bestelako eiteak ere gaurkotuz (irakasleen oinarritzko zein prestakuntza iraunkorra birplanteatuz, curriculum eskakizun berrien arabera berrituz, material sorkuntzan inbertituz, ebaluazio sistemak aldatuz eta abar). Hezkuntzan aldaketak bideratzea lan nekoso da, denbora luzea behar duena, baina erresistentziak, planteamendu berriak gauzatzeko oztopoak ez daude hezkuntza-komunitateetan bakarrik, hezkuntza-administrazioa bera ere zurruna da.

Testuinguru horretan hezkuntza-administrazioaren¹² zeregina bera ere birplanteatu beharko litzateke. Derrigorrezko irakaskuntzaren azken helburuak nola baita tartekoak definituta, ikastetxeek helburu horiek lortze aldera planifikatu egin beharko lukete (hizkuntza-proiektuak erai-kiz). Bada, hezkuntza-administrazioak tarteko helburuak lor daitezen laguntza eskaini beharko lioke hezkuntza-sare osoari, sare baten ardura ez ezik sistema osoaren erantzukizuna duela barneratuz, zailtasunak-eta antzematen dituen gaitasunak eskainiz (baliabideak, prestakuntza eta abar). Inguruabar horretan sakonduz, hezkuntza-zentroen titularitateak hezkuntza-komunitateetatik hurrago egon beharko luke (udal edo mankomunitateen esku, akaso), hartara, arazo nola baita erro-kei are bizkorrago eta era eragingarriagoan erantzungo litzaieke.

7. HIZKUNTZA-EREDUAK ALDATZEKO GUTXIENAKOAK

Epe ertain/luzera egun indarrean dauden hizkuntza-ereduak gaitutuko duen proposamena gorpuzteko orduan, bost irizpide hartu beharko genituzke kontuan: **bat**, ikasleen hizkuntza-gaitasuna garatzeko aukera eskaini behar du, euskalduntzea eta garapen kognitiboa ganoraz uztartuz, bidenabar (ikasleak hizkuntzekin gauzak egin ahala eskuratzen ditu hizkuntzak, subjektua da); **bi**, pertsonen eta hezkuntza-eragile nagusien askatasun-esparrua itotzea ez da komeni, izan ere, goitik beherako dinamikari ez ezik behetik gorakoa ere bultzatu egin behar da; **hiru**, gizarte-an egiten ari diren bestelako urratsekin bateratsu, esku-esku joatea komeni da, kontrako erreakzioa sor liteke bestela; **lau**, formulazio berriak emaitza are hobekien eman ditzakeela frogatu egin behar da; **bost**, helduleku juridiko egokia eduki behar du, segurtasun juridikorik izan ezean gatazka sortzaile izateko aukera guzti-guztiak egonen baitira.

8. ETORKIZUNA ERAIKITZEN JOATEKO HABEAK

Egun ditugun baldintzak ez dira 1980ko hamarkadan genituenak, hala fedel! Irakasleen gehiengoa euskalduna da, halaber datozen hamar urte-

Egun, eskuartean daukagun eztabaida, bada, beste leku batean dago: zein dira bizi osorako hezkuntza planteamenduen jiran, derrigorrezko irakaskuntza amaitzen duen gazte batek gaztelaniari, euskarari, ingelesari, eta laugarren hizkuntza bati (gure kasuan, frantsesari) buruz eskuratu beharko lituzkeen gaitasunak? Hori da funtsezko eztabaida, euskal gizartean etorkizun hurbilean lortu beharreko adostasun berriaren oinarria.

Testuinguru horretan hezkuntza-administrazioaren zeregina bera ere birplanteatu beharko litzateke. Derrigorrezko irakaskuntzaren azken helburuak nola baita tartekoak definituta, ikastetxeek helburu horiek lortze aldera planifikatu egin beharko lukete (hizkuntza-proiektuak eraikiz). Bada, hezkuntza-administrazioak tarteko helburuak lor daitezen laguntza eskaini beharko lioke hezkuntza-sare osoari, sare baten ardura ez ezik sistema osoaren erantzukizuna duela barneratuz, zailtasunak eta antzematen dituenean gainditzeko laguntza eskainiz (baliabideak, prestakuntza eta abar).

tan irakasleriaren garrantzi handiko berritzea gertatuko da (honek, gauzak argi edukiz gero, bestelako ezaugarriak biltzen dituzten irakasleak, besteren artean eleaniztunak, hezkuntza-sistemara erakartzeko abagunea eskainiko du), euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren gaineko sasoi bateko zalantzak gainditu ditugu, atzerriko hizkuntzen eskuratzean aitzindariak gara, testuliburu zein bestelako material didaktikoen sormenean garrantzi handiko ekarpenak egiten ari gara eta abar. Beraz, hizkuntza-ereduak gaindituko dituen estrategia ehuntzeko abagunea dugu eskuartean. Kontua, beraz, ez da orain artekoa birrintzea, orain arte egindako ibilbidean, pilatutako esperientzian sakonduz urrats berriak egitea baizik.

Hizkuntza-ereduak aldatzeko gutxiengoak izeneko pasartean esandakoa bete dezakeen proposamena honakoa izan liteke:

- a) Helburua: euskaldun eleaniztunak sortzea. Eleaniztasun planteamendu horren ardatz euskara bihurtuz. Horretarako, derrigorrezko irakaskuntza amaitzen duen gazte batek gaztelaniari, euskarari, ingelesari, eta laugarren hizkuntza bati (gure kasuan, frantsesari) buruz eskuratu beharko litzuzkeen gaitasunak ongi definitu eta hizkuntzen arteko curriculumera eraiki behar izango genuke.
- b) Azken helburuak zehaztuta, ikastetxe bakoitzak, bizi duen erreallitate (soziolinguistikoa eta abar) kontuan, ibilbide propioa (hizkuntza proiektua) zehaztu egin beharko luke (behetik gorako dinamika). Gauzak horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, kanpo ebaluazio sistema baten bidez, tarteko mailak lortzen direla jarraipena egin eta zailtasunak dituztenei laguntza emango lieke (goitik beherako dinamika). Beraz, hezkuntza planteamendu itxi batetik (kafe bera denentzat) ireki baterako urratsak egingo genituzke (kafe gehiago, gutxiago, kafeinagabea, edo dena delakoaren beharrean dagoen askotariko sistema batera). Eredu honek arrakastatsuagoak diren hezkuntza-sistemetara hurreratuko gintuzke.
- c) Proposamena gorpuzteko, erresistentziak gainditzeko eta abar, titularitate desberdineko eta egoera desberdinetatik abiatzen diren ikastetxez osatutako talde pilotua osa liteke, epe baten barruan ohiko direnak baino bitarteko are gehiago izango litzuzkeena (antolaketak, prestakuntza eta abar). Sistema berri baterako bidegileak izango lirateke. Esperientzia hori zabalduz joango litzateke harik eta sistema osora hedatu arte. Honek helburu komunak dituzten hezkuntza-zentro beste eredu izatera eramango gintuzke.
- d) Hezkuntza planteamendu berritua gorpuzteko tartea behar-beharrezkoa denez:

1. Tarte batean, ereduak mantenduko nituzke, euskarazko eredu eragingarrienaren aldeko inertzia indartuz.

2. Batxilergoan nola baita Lanbide Heziketan euskarazko irakaskuntzak dituen arazoak bideratzeko ahaleginak biderkatu egingo nituzke. Halaber, Unibertsitateetan, kreditu berberak hizkuntza desberdinetan eskaini ordez, kreditu desberdinak hizkuntza desberdinetan eskainiko nituzke, era horretara, ikasketak burutu behar dituenak, ikasketetan aurrera egiteko, hiru edo lau hizkuntza behar-beharrezko izanen ditu, hizkuntzak gauzak egiteko beharrezko bihurtuz eta hizkuntza desberdinetan duen hizkuntza-gaitasuna indartuz.

3. Klase barruko jarduna hizkuntzen erabilera areagotzeari begira egon dadin ahaleginak indartuko nituzke, besteak beste, irizpide horietara hurreratzen ez diren materialak-eta baztertuz, eraldaketak gertatzeko irakasleriaren prestakuntzan jardunez (ikastetxeak osotasun batean hartuz) eta abar. Halaber, euskararen erabilera areagotzeko urratsak berrindartu eta udal nola baita mankomunitateekin lankidetzarako¹³ espazioak eraikiko nituzke.

4. Halaber, besteak beste, unibertsitateara sartu ahal izateko probak arreta bereziz zainduko nituzke. Izan ere, egun, euskararekin alderatuta ingeles maila hobea eskatzen da (honek, ingelesaren alde eta euskararen kontra jokatzeko du). Halaber, ahozko ekoizpenari are garrantzi handiagoa eskainiko nioke.

9. HALAKO BIDE BATI EKITEKO AURREIKUS LITEZKEEN ZENBAIT ERRESISTENTZIA

Lau erresistentzia gune antzeman daitezke, nagusiki:

a) Eragozpen politikoak. Hizkuntza-ereduak ez dira bitarteko, helburu bilakatu dira. Une honetan ereduak bakar batera mugatzeko presio politikoa dago (A eta D desagertu, B eredu —euskararen garapena baldintzatuz— utziz edo A eta B ereduak baztertu, D eredu are gehiago indartuz —gaztelaniaren eta atzerriko hizkuntzen eskuratzea baldintzatuz— dira une honetan azaleratzen ari diren jarrerak). Bateko zein besteko eredu bakarrak egungo beharrianak ez ditu kontuan hartzen eta egin beharreko bidean oztopo bilakatu dira.

b) Eragozpen sindikalak eta administratiboak. Hezkuntza aniztasuna oso kontuan eduki behar omen da, baina, ikastetxe guzti-guztiei, titularitatea kontuan, 'kafe bera eman behar' praktika oso zabalduta dago, berrikuntza egitasmoak izatea, halako zein bestelako zailtasunetan aritu behar izatea... berdin dio (honek hezkuntza-komunitateko kideen ekarria arian-arian epeltzen eta ahultzen du. Zertarako ahalegindu norberak ahalegintzen ez direnek bitarteko berberak iza-

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren gaineko sasoi bateko zalantzak gaintitu ditugu, atzerriko hizkuntzen eskuratzean aitzindariak gara, testuliburu zein bestelako material didaktikoen sormenean garrantzi handiko ekarpenak egiten ari gara eta abar. Beraz, hizkuntza-ereduak gaintutako dituen estrategia ehuntzeko abagunea dugu eskuartean. Kontua, beraz, ez da orain arteko birrintzea, orain arte egindako ibilbidean, pilotutako esperientzian sakonduz urrats berriak egitea baizik.

2. Batxilergoan nola baita Lanbide Heziketan euskarazko irakaskuntzak dituen arazoak bideratzeko ahaleginak biderkatu egingo nituzke. Halaber, Unibertsitateetan, kreditu berberak hizkuntza desberdinetan eskaini ordez, kreditu desberdinak hizkuntza desberdinetan eskainiko nituzke, era horretara, ikasketak burutu behar dituenak, ikasketetan aurrera egiteko, hiru edo lau hizkuntza behar-beharrezko izanen ditu.

ten badituzte?). Helburuen baitan jarduteak bitartekoetan desberdintasunak eragitea dakar. Sindikatuak oso kontra agertuko dira, sindikatuen presioak tarteko erraz makurtzen den hezkuntza-administrazioak erresistentzia handiak erakutsiko ditu. Hezkuntza administrazioak berrikuntza bultzatzeko, aitzindaritzea erakutsi beharko luke.

c) Eragozpen korporatiboak. Proposatu den sistemak, besteak beste, maisu-maistrek lankidetzan aritzea, hezkuntza eta hizkuntza-proiektuak konpartitzea, curriculum planteamenduak berritzea eta abar eskatzen ditu. Hots, nagiak eta inertziak astinduz hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa areagotzea eskatzen du. Baina, proposamenarekin bat etorri arren, besteren artean, profesional asko dira molde zaharretara ohituegi daudenak eta haien jarduna aldatzeko inolako intentziorik ez dutenak (honakoa bideratzea erraza suerta liteke, zehar bidez ez ezik —esate baterako, sistemara sartzen diren irakasleen oinarritzko prestakuntza zainduz—, unibertsitateara sartzeko proben bitartez ere goitik beherako presioa eraginez —probok irizpide batzuetara hurreratzen badira, hezkuntza sistema osoan eragina baitute—).

d) Proposamenak indarrean dagoen hezkuntza sistema sakonean eraldatzeko urratsak egitea eskatzen du. Hezkuntza-komunitateen autonomia eta esku-hartzea bilatuz eta indartuz, hezkuntza-administrazioak hezkuntza-sistema osoaren ardura duela barneratuz, ezaugarri propioak dituen euskal hezkuntza sistema propioa eraikitzen joateko urratsak eginez, finean.

Ikusten denez, eskuartean daukagun eztabaida ez da nolana hikoia eta, besteren artean, hezkuntza sisteman ez ezik gure hizkuntzaren indar berritzean izan dezakeen eragina ere ez da gutxiesten, bihar-etzi izanen dugun gizartea bera ere baldintzatuz. Bada sasoia, beraz, nagiak astinduz, arinkeriak eta aurreiritziak baztertuz eztabaidari patxadaz nola baita seriotasunez heltzekoa.

Hausnarketa honek, besteenekin batera, horretarako balio baleza, gaitzerdi!■

OHARRAK

1. MEC (1979); *El lenguaje en la educación preescolar y ciclo preparatorio: vasco-castellano*. Madrid.
2. Hain zuzen, argitarapen honetan hainbat hizkuntza-eredu zehazten dira. Eusko Kontseilu Nagusiak, bere aldetik, eskolarako programazioa zehazteko orduan, publikazio honetako hainbat gomendio balia daitezten aholkatzen du.
3. Besteren artean, ikastoletan gaztelaniari tarte are zabalagoa eskaini beharra, kalapita askoren eta ikastoletako eredu zalanztan jartzeko polemika askoren iturburu bihurtuko zen.
4. Lege honek aurreko pasartean esandako hainbat irizpide jasoko ditu.
5. Halakoetan, hizkuntza-irizpideak beharrean, bestelako interesak tarteko, irizpide politikoak ziren gailentzen zirenak.

6. FISHMAN, Joshua A. (1980), "Limitaciones de la eficacia escolar para invertir el desplazamiento lingüístico" in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua. Ponentziak eta Komunikazioak* (189-96). Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz.
7. Espainiako Hezkuntzako Lege berria (LOE) testuinguru horretatik ere azter liteke.
8. Beste batzuen artean ikus. MUÑOIA, I. (2003) "Eleanitz-english: gizarte zientziak ingelesez". *Bat 49* (79-97). Sei.
9. *Common European Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Education Committee. Language Policy Division, Strasbourg (2001). Europako Kontseiluaren argitarapen honen itzulpena: *Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa* (2005). HABE.
10. Hain zuzen, askoren artean gorpuztutako *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma* (2006), Euskal Herrian egindako ibilbidetik edaten du, Europatik datorren korrontearekin bat eginez, bide-nabar.
11. Erreferentzia gisa, *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma* (2006) balia liteke.
12. Arrakasta are handiago duten lurraldeak (OCDE osatzen duten lurraldeen emaitzak edota Pisa ebaluazio sistemaren zein bestelakoen ondorioak gogoan) mintzagai ditugularik, emaitza horien atzealdean den hezkuntza sistema gutxitan aztertzen dugu, nik uste.
13. Euskararen Aholku Batzordea (2004): *Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea*.

Hizkuntza-ereduak ez dira bitarteko, helburu bilakatu dira. Une honetan ereduak bakar batera mugatzeko presio politikoa dago (A eta D desagertu, B eredu –euskararen garapena baldintzatuz– utziz edo A eta B ereduak baztertu, D eredu are gehiago indartuz –gaztelaniaren eta atzerriko hizkuntzen eskuratzea baldintzatuz– dira une honetan azaleratzen ari diren jarrerak). Bateko zein besteko eredu bakarrak egungo beharrianak ez ditu kontuan hartzen eta egin beharreko bidean oztupo bilakatuko dira.